

EGOERAREN AZTERKETA 147

EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALARI BURUZKO TXOSTENA

ARO BERRIA



*Gerra komertziala,
belizismoa eta
gorakada erreakzionarioa*

DATU ESANGURATSUAK

2. or.

Trumpek munduko ordena irauli du

- Energia fosilen eta klimaren aurkako neurrien aldeko apustua.
- Merkataritza-gerra eta muga-zergen igoera.
- Zergen murrizketa enpresei eta aberatsei.
- Diskurtso espantsionista eta militarista.
- Teknohandikiak boterean.

Europa krisian, gerrarako prestatuko da

- 2024ko atzeraldiaren atarian eta 2025erako aurreikuspen txarrak.
- Alemania eta industriaren gainbehera.
- Draghi eta Letta txostena.
- ReArm Europe (800.000 milioi euro).
- Egonkortasun eta Hazkunde Itun berria = gastuaren murrizketa.

Hego Euskal Herria

- Ekonomiak eutsi, baina esportazioek behera egin zuten 2024an.
- Kezka industria-sektorean.
- Zedarriak txostena: defentsa militarren aldeko apustua.
- Eroshalmenaren galera 2019arekin alderatuz.
- 2024, enplegurarentzat urte txarra eta prekarietatea gora.

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Nazioarteko egoera	4
2.1. Krisi klimatikoa ez da eteten	4
2.2. Lehia geopolitikoa soberanisten eta globalistena artean	6
2.3. AEB, Trumpen garaipenak planeta irauli du	6
2.4. Txinak bete egiten du, arazoak arazo	12
2.5. Europa krisian	13
2.6. Alemania, industriaren gainbehera	14
2.7. Hego Euskal Herria, ziurgabetasun osoan	15
3. Adierazle makroekonomikoen analisia	17
3.1. Analisi globala	17
3.2. Europa	18
3.3. Hego Euskal Herria	19
4. Inflazioa, moneta-politika eta erosahalmena	20
4.1. KPIa beherantz, baina oraindik %2tik gora	21
4.2. Erosahalmena behera	22
5. Enplegu adierazleen azterketa	23
5.1. Urte txarra enpleguarentzat	23
5.2. Kontratuen prekarietatea hazi egin da	25

1. Sarrera

4. or.

2024an, aurreko urteetan ikusitako joerak mantendu ez ezik, areagotu egin ziren. Gatazka militarrek, geopolitikoak eta komertzialak beste maila batera igaro ziren, ezegonkortasun globala sakonduz. Ekialde hurbileko egoera, palestinarren genozidioa, Errusia eta Ukrainaren arteko gerra, esku-sartzeak eta Alemaniaren eta Frantziaren ahultasun politiko eta ekonomikoa izan ziren urtea markatu zuten gertaera batzuk.

Zalantzarik gabe, 2025 urtea, eta baita hurrengoak ere, Estatu Batuetako presidentetzara Trump itzultzeak markatuko du. Handikiak urrezko aro baten hasiera aldarrikatu du, Gerra komertziala du ikur, muga-zerga gisa, eta horrek nazioarteko testuingurua irauliko du. Europar Batasunak eta beste eragile batzuek sustatutako ikuspegi globalista baten eta Trump buru duen ikuspegi soberanista baten arteko borrokak markatutako testuingurua da, eta haren bilakaerak eragin nabarmena izango du munduko ordenan. Halaber, ultraeskuinaren olatua aurrera egiten ari da planeta mailan, gainera Trumpen garaipenak mugimendu erreazionario horri hegoak eman dizkio, guzti hau Europak krisi ekonomikoa duen testuinguruan. Bien bitartean, erretorika belizistak eta militarizazioarako deiek ez dute etenik. Errusiaren eta Ukrainaren arteko bake-negoiazioak gorabehera, mundua gerra aurreko giroan dago. Horren erakusgarri da Europaren berrarmatzea, zeinak EBren defentsarako aurrekontua zeharo handitzea ekarriko du. Zentzu horretan, duela gutxi Mark Rutte esan zuen "gerra pentsamolde bat hartzeko garaia dela".

Edizio honetan, argitalpenaren 147. zenbakian, zehatz-mehatz aztertuko dugu zer gertatzen ari den maila globalean. Horregatik, AEBetako egoera ekonomikoa, sozial eta politikoan geldituko gara, eta, ondoren, Europako testuingurua eta HEH aztertuko ditugu. Bestalde, txostenak 2024ko estatistika-erakunde nagusien adierazle makroekonomikoak aztertzen ditu, baita aurtengo aurreikuspenak ere. Gainera, moneta-politika eta horrek euriborrean dituen ondorioak aztertuko ditugu. Era berean, inflazioaren krisia amaitu ondoren, prezioen igoerak biztanleriari nola eragin dion eta erosteko ahalmenaren galera egon den aztertuko dugu. Azkenik, enpleguarentzat atal bat gorde dugu, eta 2024an gertatutakoa aztertuko dugu bertan.

2. Nazioarteko egoera

Pandemia jasan genuenetik bizi dugun aldi honi "polikrisi" deitu izan diogu. Termino hau lehenengoz 90. eta hamarkadan Edgar Morinek erabili zuen. Hainbat krisi aldi berean gertatzen diren unea deskribatzen du, guztiak ere elkarren artean lotuak eta batak bestea azkartzen dutenak. Krisi hauek dimentsio politiko, ekonomikoa, sozial, ekologikoa, sanitario eta teknologikoak dituzte, eta hauen arteko elkarrekin inpaktu sakonago eta konplexuagoa du krisi isolatuak balira baino. Oraingo unea, gure ustez, era horretakoa da. Atal honetan krisi guzti hauek aztertuko ditugu, eta nola eragiten dioten, edo eragin diezaioketen, gure lurraldearen errealitateari.

2.1. Krisi klimatikoa ez da eteten


Kezka handiena eragin beharko luke krisi klimatikoak eta honek gure planetan izaten ari den inpaktuak. Batez besteko tenperatura globala industriaurreko garaitik hona 1,2 eta 1,6°C bitartean igo da¹. Igoera hori aldaketa nabarmenak eragiten ari da patroi klimatikoetan, hala nola bero-bolada sarriagoak eta biziagoak, poloetan eta glaziarretan urtzeak, eta itsas mailaren igoera. Gainera, berotze globalak muturreko fenomeno meteorologikoak areagotzen ari da, eta arriskuan jartzen ditu hala ekosistemak nola biztanleria, mundu guztian zehar. Aldaketa hauek ez dira etorkizuneko mehatxuak; dagoeneko ari dira gertatzen, eta berehalako erantzunak eskatzen dituzte, adituek dioten moduan.

¹ Copernicus.

Krisi honen agerraldirik nabarmenen artean dago hondamendi naturalen gorakada. Gero eta suntsipen handiagoa eragiten duten urakanak, sute kontrolaezinak basoetan, lehorte luzeak, gero eta ohikoagoak diren tanta hotz kasuak, etab. Katastrofe hauek jendearen bizia arriskuan jartzeaz gainera bizimodurako beharrezkoak diren bitartekoak suntsitzen dituzte, elikagaien segurtasun eza areagotzen dute eta milioika lagun etxetik alde egitera behartzen dituzte. Esaterako, Global Water Monitor erakundeak dienez urarekin zerikusia duten muturreko gertakari meteorologikoen 2024an milaka hildako eta 550.000 milioi dolarren galera ekonomikoak eragin zituzten². Aipatu behar da katastrofe hauek hondamen handiagoa dakartela Hegoalde Globaleko herrialde pobreetan. Honek guztiak egoera aski gogorra are larriagoa egiten du.

Hain zuzen ere, 2024ko azaroan COP29³ goi-bilera Bakun (Azerbaijan) izan zen. Biltzar hau ez zen gauza izan erronkei erantzuteko. Punturik garrantzitsuena izan zen herrialde aberatsek 2035rako 300.000 milioi dolar jartzeko adierazi zuten asmoa, klima-aldaketaren eragina leundu eta hari egokitzeko. Hauek ez dira nahikoak klima-aldaketari aurre egiteko. Haatik, 2009ko COPean ere 2020 eta 2025 bitartean urtero 100.000 milioi dolar jartzeko asmoa ebatzi zen helburu berdinerako. Alabaina, ekarpen hau berandu hasi zen betetzen, 2022an, eta honez gero ez da nahikoa.

1. Figura. Urarekin lotutako ekitaldi nagusiak 2024an



Iturria: Global Water Monitor

Gainera, ez dago baikortasun handirik planetaren etorkizunari dagokionez. Trumpen aukeraketak planetan eragin negatiboa izango duela aurreikus baitaiteke, hurrengo atalean aztertuko dugun bezala.

² Global Water Monitor 2024 summary report.

³ Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentzia.

2.2. Lehia geopolitiko soberanisten eta globalistena artean

Duela aste batzuk *El País* egunkariko Ideas gehigarrian International Crisis Group think-tankak duela gutxi plazaratu duen txosten bat aipatu zuten; honakoa zioen: “Badirudi mundua paradigma aldaketa baterantz doala. Auzia da ea hori negoziazio-mahaietan ala guda-zelaietan erabakiko den”. Pentsa liteke esaldi hau gehiegizkoa dela, baina bizi dugun egoera puntu zehatzean kokatzen du. Zalantzarik gabe, paradigma aldaketa gertatzen ari da, edo “aro aldaketa”, Trumpek dioen bezala: nazioarteko merkataritzaren sistema eta nazioarteko harremanak mutatzten ari dira, agertoki ezezagun baterantz.

Aro berri hau birdefinitzeko orduan, zenbait hedabidek adierazi dute soberanista eta globalisten arteko lehi gertatzen ari dela. Haatik, gure ustez lehenak areago dira nazionalpopulistak (gehienetan eskuin muturreko gobernuak), eta bigarrenak, aldiz globalista liberalak (status quo-ari eta ustezko alde anitzeko dinamikari eutsi nahi dioten gobernuak). Harriztekoa da, nolabait ere, batzuei eta besteei buruz halako terminoak erabiltzea. Subiranotasunaren aldarrikapena ezkerreko mugimenduekin lotuta egon da, eta multilateralismoak "nazioarteko eragile anitzen arteko lankidetzara arau partekatuen pean" esan nahi du. Esan daiteke bi korrante horiek diotenetik urruntzen diren bi kontu direla.

Hain zuzen, esan daiteke, aldeaniztasun terminoa BRICseko herrialdeek erabiltzen duten termino bera izanagatik ere, praktikan ez dutela eskenatoki bera marrazten. Globalisten multilateralismoaren oinarriak dira Washintoneko Kontsentsua, NDF eta Munduko Bankuarenak. Hau da, Gerra Hotza amaitu zenetik hona ezagutu duguna, eta esan behar da hor ez dutela lekurik mendebaldeko estatuen orbitan dauden herrialdeek. Aitzitik, BRICsek, batik bat Txinak eta Errusiak, mundu multipolarra aldarrikatzen dute, eta euren helburua AEBk lideratzen duen hegemonia horrekin amaitzea da.

2.3. AEB, Trumpen garaipenak planeta irauli du

Jakina, Trump berriz boterera iritsi izanak Estatu Batuetan bertan aldaketa ugari eragingo du, baina areago nazioarteko harremanetan. Inbestidura egun berean sinatu zituen dekretuekin Estatu Batuetako 47. presidentek agerian utzi zuen zer nolakoa izango den bere bigarren agintaldia. Besteak beste: hegoaldeko mugan larrialdi nazional egoera ezartzea, migratzaileen deportazioa, Green New Deal bertan behera uztea, Parisko Akordioei uko egitea, Kapitolioari eraso zioten 1.500 lagunentzako indultuak, legez soilik bi genero onartzen direla ebatzea, etab. Hauen analisia egin aurretik aipatu beharrekoa da nortzuk izan ziren ekitaldiko gonbidatu nagusiak; adierazgarria delako zer espero daitekeen datozen lau urteetan. AEBetako enpresarik handienetako buruak (Musk, Bezos, Zuckerberg, etab.) eta munduko eskuin muturreko liderrak (Meloni, Milei, Abascal, Farage, etab.) izan ziren urtarilaren 20ko izarrak.

Egoeraren Azterketaren ale honetan, zeinaren izenburua den “Urrezko aroa: gerra komertziala, belizismoa eta gorakada erreakzionarioa”, Ipar Ameriketako errealitateari arretaz erreparatu nahi izan diogu. Hurrengo lerroetan aletuko ditugu gai horiek. Hauek eragin handia izango duten munduko beste lekuetan, eta baita Hego Euskal Herrian ere.

“Zulatu, laztana, zulatu”

Trumpen garaipena ez da bat ere seinale ona gure planetaren etorkizunerako. Boterera itzuli denetik, presidenteak klima-politikei buruzko erabaki larriak hartu ditu. Bere lehen urratsetako bat izan zen Estatu Batuak Parisko Akordiotik erretiratzea (halaxe jokatu zuen bere lehenengo agintaldian ere). Erabaki honekin bere herrialdea mundu mailan isolatuta utzi du klima-aldaketari aurre egiteko ahalegin globalei dagokienez. Hori atzerapausoa da herrialde ugari sinatutako akordio batean. Esan behar da gutxieneko itun bat izanagatik ere, klimaren arloan zegoen oinarri bakarretakoa genuen. Gainera, Trumpek gogor hartu dio kargu Bidenen gobernuak deskarbonizatzeko prestatu zuen planari. Hain zuzen, esan genezake klimaren inguruko aurrerapausoak, esaterako Green New Deal⁴, paper errea izango direla. Besteak beste, administrazioak agindu duelako 3 bilioi dolarren dirulaguntza eta mailegu federalak eteteko, aurrez erabakitako egitasmo horiek berrikusi eta amaiarazteko⁴. Halaber, Inflazioa Murrizteko Legearen baitako dirulaguntza-politikari eutsi arren, aldaketak egingo dira. Aurrerantzean ez zaie laguntza emango industria berdeei, baizik eta Gobernuaren aliatuen esku diren enpresei. Alegia, batez ere defentsa eta teknologian dihardutenei.

Hauteskunde kanpainan leloetako bat "Drill, baby, drill" (Zulatu, laztana, zulatu) izan zen. Lelo horren atzean energia fosilen aldeko apustua dago, fracking-aren hedapena sustatzea, baita Alaskako lurra zulatzea eta ingurumen-araudiak kentzea ere, petrolio eta gas gehiago ekoizteko. Presidente berriaren argudioa da estrategia honekin AEBen independentzia energetikoa bermatuko dela eta kontsumitzaileentzat merkeagoa izango dela. Haatik, argi dago ingurumenean inpaktu gogorra izango duela eta energia-iturri garbietarako trantsizioan atzerapausoa eragingo duela.

Trumpen politikak beste zehar-ondorio batzuek ere izango dituzte. Klima-aldaketarekin zerikusi handia duen albiste garrantzitsu bat da banku eta funts-kudeatzaile handiek 2050erako berotegi-efektuko gasen isuria zerora ekartzeko klimaren aldeko aliantzak baztertzen hasi direla⁵. Bestalde, aipa daiteke lehen adierazitako erabakiek munduko beste ekonomietan ere eragina izango dutela, beste herrialdeetako klima-planak aldatzeko pizgarria diren heinean.



⁴ Cortellessa, E. (2025eko otsailak 28). Trump freezes federal aid using impoundment tactic. *Time*.

⁵ Alvarez, Y. (2025eko urtarrilak 13). Los grandes bancos estadounidenses se pliegan a Trump y abandonan alianzas climáticas. *El Salto Diario*.

Aro berri bat

8. or.

Alde anitzeko erakundeak mundu mailako potentzien esanetara zeudenak, eta zehazki AEBen zerbitzura, jada ez dira beharrezkoak aurkezten den garai berrirako. Trumpismoa aspaldi honetan esaten ari da alde anitzeko erakundeak ez direla onuragarriak eurentzat. Osasunaren Mundu Erakundea (OME) izan da gehien nabarmendu dutena. Errepublikanoen hegal gogorrenak sarri salatu zuen OMEk “covid gaizki kudeatu” omen zuela, baita AEBek egiten zizkion gehiegizko ordainak ere. Horregatik, Trumpek, agintera iritsi eta berehal, OMEtik alde egin du. Erakundearen tzako astindu latza izan da, baina ez da kasu bakarra: aipatu dugu honez gero Parisko Akordioei uko egin dietela; Merkataritzaren Mundu Erakundeari buruzko erabakiak ere hartu dituzte, eta Nazioarteko Zigor-Auzitegiari zigorrak ezarri dizkiote.

Hau ez da erakunde jakin batzuei egindako kritika hutsa; mundu mailako ordenari buruzko posizio berri bat adierazten dute, baita erakunde multilateralei buruz ere. Honenbestez, esan den legez, agertoki berri bat datorkigu. Horrek ondorioak izango ditu nazioarteko harremanetan, eta baita merkataritzan, honi aurrerago helduko diogun arren. Zantzuen arabera nazioarteko harremanen norabidea aldatu egingo da, antza interes alderdikoak areago nagusituko dira, eta ados ez dauden gobernuen kontra muga-zergen mehatxua baliatuko da.

Trumpek badauka Europarekiko harremana hausteko gizon egokia: Elon Musk. Teslaren jabeak demokrazia liberalaren joko-arauak ere hankaz gora jarri ditu, beste herrialdeetako politikan muturra sartuz. Hau AEBen historian ohikoa izan da, baina oraingoan NATOko aliatuekin edo ustez adiskide diren herrialdeekin ere ari dira egiten. Alemanian Muskek berariaz eman zion babes a AfDri (Alemaniarako Alternatiba), X bere sare sozialean idatzi zuenez, “AfD da Alemania salba dezakeen bakarra”. Erresuma Batuan Keir Starmerri bota zizkion irainak, pederasta zela esanez, lurrikara politikoa eragin zuten. Guzti hau ez da kasualitatea. Eskuin muturrari sostengua emanda Europar Batasunaren baitan zatiketa sortu nahi dute, gero errazago menperatzeko.



«Ez digute tratu onik ematen, ez arlo militarrean, ez eta merkataritzan ere»

Trump

Helburua da negoziatzerakoan bere baldintza zorrotzak ezartzea, besteak beste ekonomia desarautzeko eta Europako gastu militarra handitzeko. Davosen eman zuen hitzaldian Trumpek Europar Batasuna erasotu zuen honek AEBtako erraldoi teknologikoei ezarritako arau eta zergak zirela eta. Horretaz gain, Europako produktuen gaineko muga-zergak ezartzeko mehatxua bota zuen. Gai honi aurrerago helduko diogu. Halaber, esan zuen Europari zerga gehiago ezarriko dizkiola AEBetako automobil eta gas gehiago erosi eta Defentsa aurrekontua handitu ezean.

Diskurtso militarista presidente berriaren eta agertoki globalaren beste ezaugarri bat da. Trumpen eta europako liderren xedea da gerra-aurreko giroa sortzea, gastu militar handiagoa justifikatzeko. Orain arte magnate errepublikarrak NATOkon sozioei BPGaren %3ko defentsa-aurrekontua eskatzen zien, baina orain kopuru hori %5eraino handitu nahi du. Atlantismoko herrialde kideen gastu militarren igoera hori zulo bat izango litzateke Espainiako Estatuaren kontu publikoentzat⁶. Aldiz, Estatu Batuen esportazioak handituko lirateke, arma-industriarentzat onura handiak sortuz.

Baina kontua ez da hor amaitzen. "Urrezko aro" honetako beste gako bat espantsionismoa da. Honek azken asteetan are indar handiagoa hartu duen bultzada inperialista gero eta handiagoa medio. Lider errepublikarrak Groenlandia eta Panamako Kanala bereganatzeko asmoa adierazi du; Mexikoko Golkoari "Amerikako Golkoa" izena eman dio, eta Kanada AEBetako 51. estatua izan beharko litzatekeela esatera ere ausartu da.

Herrialde horiekiko interesa ekonomikoa da. Izan ere, Groenlandiak eta Kanadak "ustiategi mineral handiak" baitituzte, "batik bat 'energia-erlaketak' rako eta 'ibilgailu elektrikoak iraultza' rako beharrezko direnak. Hauek Musken interesei lotuta daude, baita teknologiko erraldoietako buru ezagunen interesei ere". Panamari dagokionez, AEBen helburu estrategikoa Txina da. Txinaren hazkundeak arriskuan jartzen du iparramerikarren hegemonia, eta honek ziurgabetasuna eragiten dio, potentzia asiarrak Latinoamerikan presentzia areagotzen ari baita.

2. Figura. Urrezko aroaren ezaugarriak



Beraz, hau ikusita, nahikoa argudio dago Trump benetan gerrazalea ote den zalantzan jartzen dutenei erantzuteko. Egia da Ukraina eta Errusiaren arteko akordioa bultzatzen ari dela, gerra buka dadin. Betiere ondorioak ez dira berberak izango Ukrainak negoziatzeko posizio indartsuagoa edo ahulagoa badu, hau da, estatubatuarren sostengua badu ala ez.

⁶ %3ra iristeko Espainiako Gobernuak 28.500 milioi euro gehiago bideratu beharko litzuzke.

“Muga-zerga handiak ordaindu edo akordioaren bat iritsi behar dugu”

10. or.

Trumpen bigarren agintaldiak nazioarteko merkataritzari kalte eragin diezaioke, pizten ari den gerra komertzialaren ondorioz. Egoeraren Azterketaren aurreko zenbakietan esan izan dugu Trumpek bere lehen agintaldian hasitako merkataritza-gerrak, eta Bidenek mantendu duenak, merkataritza globalari ez diote onurarik ekarri. Haatik, oraingoa estatuen arteko salerosketei emandako azken kolpea izan liteke.

Muga-zergak inportatutako ondasunen gaineko zerga dira eta hirugarren herrialdeetatik inportatzen diren salgaiak garestitzeko erabiltzen dira. Muga-zergak ezartzea, edo, hobeto esanda, horien mehatxua, gobernu berriaren politikaren ezaugarrietako bat da. Hala ere, egia da, muga-zerga masiboen iragarpenak beste politika mota batzuk negoziatzeko tresna izan daitezkeela, esate baterako, frontera arloan. Txosten hau egin arte (2024ko otsailaren 21ean), Trumpek honako hau iragarri du:

- 2025eko otsailaren 4tik aurrera Trumpen administrazioak %10eko muga-zerga gehigarria ezarri zien Txinatik datozen inportazioei. Ondoren, %20ra igoko zuela iragarri zuen.
- Mexiko eta Kanadatik inportatutako ondasunen gainekoak %25ekoak izango dira.
- AEBek %25eko muga-zergak ezarriko dizkie altzairu eta aluminio inportazioei (%50 Mexiko eta Kanadatik badatoz), honek Europar Batasunari eragingo dio.
- Automobilerik %25eko muga-zergak apiriletik aurrera. Horrek eragina izango du Hego Euskal Herrian, esportazio gehienak automobilgintzaren sektorekoak baitira. Gainera, erdiekoaleak eta farmazia-produktuak ere zergapetuko dira.
- Nekazaritzako produktuen inportazioen muga-zergak apirilaren 2tik.
- AEBek elkarrekiko muga-zerga berberak aplikatuko dizkie merkataritza-oztopoak dituzten herrialdeei. Honek garapen bidean diren herrialdeengan eragin handia izango du: Brasil, Vietnam, Argentina eta Asia hegoekialdeko nahiz Afrikako hainbat estatu. Hauek AEBetako produktuen gain ezarritako muga-zergak handiegiak direla deritzote.

Muga-zergen ofentsiba honek, AEBentzat kontrako efektu bera eragingo du. Dagoeneko Mexikok eta Kanadak esan dute AEBei hauek ezarritako muga-zergak aplikatuko dizkietela. Bruselak, berriz, erantzun europarra “irmoa eta neurrikoa” izango dela adierazi du. Martxoaren 12an 26.000 milioi euroko muga-zergak iragarri ziren. Txinak ere berdintsu jokatu du, muga-zergak ezarriz.

Ondorioak oso txarrak izan litezke mundu mailan. Lehenik eta behin, tarifek AEBetako enpresen kostuetan eragingo dute. Munduko enpresa gehienek bezala, hauek ere ekoizpen-prozesuaren azati esanguratsuak deslokalizatuta dituzte lan-kostu baxuagoak dituzten herrialdeetan, adibidez, Mexikon. Beraz, ziurrenik muga-zergen ezarpenak leku askotan ekonomia moteltzea eragingo du eta, gero ikusiko dugunez, gure lurraldeko ekonomiak ere kalteak paira ditzake. Honek berririo inflazio-aldiak ekar ditzake, eta ondorioz interes-tasen igoera, azken urteetan ikusi izan dugun legez. Honek, ezin ahaztu, beharrik handiena duten sektoreei eragiten die kaltea, baita zorra dolarizatuta duten estatu pobreei ere.


"Munduko edozein naziotako zergarik baxuenetako bat emango dugu"

Zerga-politikari dagokionez, dirudun handi errepublikarrak hauteskunde-kanpainen aurreratu zuten goitik beherako erreforma bat egiteko asmoa zuela. Erreforma honela laburbil daiteke. Lehenik, korporazio handien eta aberatsenen zergak murriztu. Aurreko agintaldian dagoeneko sozietateen zerga %35etik %21eraino jaitsi zuten; orain %15eraino murriztu nahi du. Bestalde, Gobernuak esaten du muga-zergei esker sarrera nahikoak izango dituela errenta-zerga jaisteko. Areago, Trumpek esan du guztiz kentzea dela helburua. Zerga-jaitsiera hauek guztiak sarrera handienak dituztenen mesedetan izango dira eta gutxien duen jendeari kalte eragingo dio.

Politika honen xedea da, AEBetako korporazio teknologiko eta energetiko handien kontuak hobetzeaz gainera, atzerriko enpresak erakartzea; honek dumping fiskala hedatuaraziz. Fiskalitatean beheranzko lasterketa bat hastea ekar dezake, eta honek, guri ere eragingo digu. Presidente berriak Davosen hau esan zuen: "Mezu argi bat dut munduko enpresa guztientzat: zatozte Estatu Batuetara zuten produktuak ekoiztera, eta munduko zergarik apalenak ezarriko dizkizuegu". Bestalde, esan dugun moduan, AEBetako lurraldeetan ez ezartzea erabakitzen duten enpresek muga-zergak ordainduko dituztela ohartarazi zuen.

Fiskalitatearen aldaketa honek diru-bilketa zeharo urrituko du. Zenbait hedabideren arabera, aipatutako neurrien inpaktua 9 bilioi dolarrekoa izango da. Hau da, aurrekontu federalaren zati handi bat. Gogora dezagun, AEBtako aurrekontu-politika urtez urte errepikatzen den defizit fiskalean oinarritzen dela. 2023an %6ra iritsi zen, eta 2024an ia 2 bilioi dolar izan ziren (BPGaren %7⁷), zorra areagotuz. 2024 urtea %121,8ko⁸ zor publikoarekin amaitu zen, hau da, 36 bilioi dolarrekin eta interes ordainketa ia bilioi batekoa izan zen.

1. grafikoa. Gobernu Federalaren zor publikoaren bilakaera (BPGaren %)



Iturria: Azterketa Bulegoak egin FRED-en datuekin

Esan bezala, egoera hau azken urteetan larriagotu egin da, hein batean covidak eragindako gastu publikoaren igoera dela eta. Baina Trumpen neurriek arazoa larriagotu egin dezakete. Muga-zergen sarrerez gainera, Trumpek gastu publikoa murriztu nahi du, eta horretarako administrazioa zeharo txikiagotzeko asmoa du. Mileiren modura, Musken esku utzi du funtzionarioak kaleratzeko plan bat egitea.

⁷ Caixabank CBOren bidez.

⁸ FRED (Federal Reserve Economic Data).

Miliodunen exekutiboa

Halaxe deitzen diote hedabideek AEBetako gobernu berriari. Kargutik agurtzeko hitzaldian, Biden presidente oihak ohartarazi zuen egoera honi buruz: "Arriskutsua da hainbeste botere aberats oso gutxiren eskuetan metatzea". Esan dezakegu botere politiko eta ekonomiko erreakzioarioaren konbergentziaren aurrean gaudela. Lehenengo egunetik ikusi da konpainia teknologiko erraldoiek alderdi errepublikarrarekin elkar hartuta jokatzeko dutela, inbestidura saioan presidentearen ondoan kokaturik. Elon Musk izan zen Trumpen kanpainari bultzada handiena eman zienetako bat, 277 milioi dolar eman zituen. Oligarkia digitaleko beste ordezkariak ere hor ziren: Google, Microsoft, Amazon, Meta, Uber eta OpenAlko buruak. Hauek ere beren ekarpena egin zuten. Argi dagoena da Silicon Valleyko jauntxoek egin dezaketeko hoberena magnate errepublikanoarekin harreman ona izatea da. Mark Zuckerbergekin, adibidez, MAGAren ideologia libertarioaren aldeko jarrera adierazi du eta bere plataformaren gorroto-diskurtsoa eta desinformazioa arautzeko aukera baztertu du.

Interes ekonomikoek argi eta garbi eragiten diote haien jarrerari. Yago Alvarezek zioen artikulu batean⁹ "Teslaren jabe den magnateak eskuin muturreko hautagaiekin eta lehendakariekin duen harremanak etekin ederrak emango dizkio emaitza-kontuan". Artikulu horretan Alvarezek aztertzen du Elon Musken fortuna nola hazi den, eskuin muturreko liderrei babes emanaz, batik bat Donald Trumpi. Azaroan Trump hauteskundeetan garaile izan ondoren, Musk-en aberastasunak 400.000 milioi dolarreko muga gainditu zuen, Tesla-ren akzioen igoerak eta SpaceX-en balorazioak bultzatuta. Merkatuek susmatzen dute eskuin muturreko alderdien garaipenek Musken negozioari mesede egiten diotela, eta hala saritzen dute ere.

2.4. Txinak bete egiten du, arazoak arazo

"Made in China 2025" programa 2015ean hasi zen. Anbizio handiko plan estrategiko bat zen herrialdeko egitura produktiboa eraldatu eta sektore oso teknologikoetan munduko lider bihurtzeko. Haren asmoa zen balio erantsi apaleko enprekin Txinaren menpekotasuna gainditzea. Hau da, ez zuten munduko fabrika izan nahi, eta helburua zen oinarriko industrietan aurrera egitea, hala nola, erdi-eroleen produkzioa, adimen artifiziala, ibilgailu elektrikoak eta energia berriztagarriak.

Pekinek enpresari emandako sostengua areagotu du, baita ondasun teknologiko aurreratuen esportazioa sustatu ere. Hala ere, Txinak arazo estruktural bati aurre egin behar dio: kontsumoak BPGari egiten dion ekarpena txikia da, eta horrek kanpo eskarian mendekotasun handia eragiten dio bere hazkunde ekonomikoa eusteko. Ekonomia barne-kontsumora bideratzeko saiakerak saiakera, azken urteetako joerak adierazten du barne-ekonomia ahula dela eta enpresa-erakundearen bultzada handia eman diotela. Desoreka handitu egin da higiezinaren sektoreko krisiarekin, urte askotan hau Txinako hazkundearen euskarri izan dena. Arlo geopolitikoan Txinaren eta Errusiaren arteko aliantza sendotu egin da azkenaldian. Bi herrialdeetako liderrek mundu multipolarrarekiko eta hainbat eremutako lankidetzak estrategikorekiko konpromisoa berretsi zuten, energia eta teknologia barne.

Merkataritza eremuan AEBekiko tentsio gero eta handiagoak muga-zergak ezartzera eta material estrategikoen esportazioa kontrolatzera eraman dute. Erantzuna berehala etorri zen, 2025eko otsailaren 4an Txinak AEBetako produktuei muga-zerga berriak ezarri zituela iragarri zuen. Batetik, %15 ikatzari eta gas natural likidotuari (GNL), eta bestetik, %10 petrolio eta nekazaritzako makineriari. Martxoan berriro iragarri zituen Estatu Batuetako oilasko, gari eta artoaren inportazioak % 15 zergapetuko zituzten muga-zerga berriak.

⁹ Alvarez, Y. (2025eko urtarrilak 9). Elon Musk S.A.: así gana dinero apoyando a Trump y a la extrema derecha. *El Salto Diario*.

2.5. Europa krisian

Pradales lehendakariak analisi zuzena egin zuen hau esan zuenean: "Europak baztertuta geratzeko arriskua du bipolarizazio global areagotu batean". Aurreko zenbakietan esan izan dugun legez, "Europa atzeratuta ari da geratzen lasterketa teknologiko, industrial eta militarrean" eta gaur egun, egoera hori are gehiago areagotu da.

Gaur egun, Trumpek irabazi ostean, Europa bidegurutze batean dago. Urte luzez AEBekin loerrokaturata egon ondoren (edo morroi gisa lan egin ondoren) EBk une erabakigarriari egin behar dio aurre. AEBiko mendekotasuna aspaldikoa da, baina Ukrainiako gerrak are gehiago indartu du. Gerrak Mendebaldeko ekonomietan inpaktu ezberdina izan du; Europan energia garestitu egin da eta ekonomia moteldu, baina AEB kontinenterako GNL hornitzaile nagusi bihurtu da, eta krisiaren onuradun izan da. AEBetako energia-enpresek hornitzaile estrategiko izateko abagunea ikusi dute, eta prezioetan zein merkaturako sarbidean abantaila handiagoak lortu dituzte. Europako enpresak, aldiz, ziurgabetasun egoeran daude.

Egoera horren aurrean, ekonomia "autosufizienteago eta jasangarriago" baterantz eraldatzeko estrategia berri bat diseinatzea jarri zuen helburu EBk. Alde batetik, autonomia estrategikoaren aldeko apustua, eta bestetik, «Green Deal Industria Plana» aurkeztea. Plan horren helburua IRARI (Inflazioa Murrizteko Legea) eta Txinako estatu-sorospenei aurre egitea zen, AEBetako pizgarriei aurre egiteko eta funtsezko industrien deslokalizazioa saihesteko. Ildo beretik, Draghi eta Lettaren txostenek merkatu bakarra indartzeko eta hazkundera bultzatzeko egiturazko erreformak eta inbertsio estrategikoak sustatzeko beharra nabarmendu dute. Draghi txostenak berrikuntza eta lehiakortasunean inbertsioa handitzea nabarmentzen du, hazkundera suspertzeko. Besteak beste, defentsa-industria indartzeko neurri erabakigarriak hartzeko eskatu dio Draghi Europar Batasunari. Letta txostenak azpimarratzen du garrantzitsua dela integrazio ekonomikoan sakontzea eta EBren erresilientzia hobetzea krisi globalen aurrean. Bi txostenak bat datoz Europako jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko egiturazko erreformen premian.

Horrenbestez, Ursula Von der Leyen Europar Batzordeko lehendakariak aitortu zuen Europako eredu ekonomikoaren oinarriak (Txinako eskulan merkea eta Errusiako energia) zaharkituta geratu zirela. EBren erantzuna izan da, batetik, autonomia estrategikoaren alde egitea eta, bestetik, "Green Deal Plan Industrialia". Honen xedea da AEBetako inflazioaren kontrako legeari (IRA) eta Txinako estatuaren laguntzei aurre egitea, eta estatubatuarren pizgarriak orekatuz oinarriko industrien deslokalizazioa ekiditea.

Europako Batzordeak ustezko plan berdeak iragarri ditu azken hilabete eta urteetan, hala nola Industria Garbiaren Ituna, Green Deal Industria Plana (nahiz eta Martijak eta Fernandezek adierazi bezala, berde olibaz hitz egin genezakeen¹⁰), armamentu militarreko gastua handitzeko iragarkiekin talka egiten dutenak. Europar Batasunak gehiago inbertitu nahi du bere defentsa-industrian, hirugarren herrialdeekiko mendekotasuna murrizteko. Martxoaren hasieran ReArm Europe plana iragarri zuen eta horretarako 800.000 milioi euro bideratuko dira. Ukrainan bakea lortzen bada ere, defentsan inbertitzea "lehentasun estrategikoa" izaten jarraituko duela onartu du Bruselak. Esparru horretan, agenda berdea lekualdatzen ari da, eta gastu militarra handitzearen aldeko apustua orokorra da. Beraz, gero eta urrunago gaude bidezko trantsizio ekosozial batetik.

¹⁰ Martija, G eta Fernandez, G. (2024). *Unión Europea: Agenda verde oliva y digital al servicio de las empresas transnacionales*.

Gainera, industria militarreko gastua handitzeko asmoa Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren esparru berria indarrean sartu denean adierazi da. Itun horrek Europako gastu publikoa mugatuko die %60tik gorako zorra (Estatuaren kasuan) edo %3tik gorako defizit publikoa duten herrialdeei, eta murrizketak eragingo ditu gastu sozialean. Beraz, herrialde kide gehienek ezingo lukete armamentu militarreko gastua handitu. Hala ere, badirudi ihes egiteko klausula bat egongo dela, defentsa militarrean gehiago gastatzea ahalbidetuko duena, defizitaren kalkuluaren zenbaketan salbuetsita egongo baita.

3. Figura. Europako testuinguruaren ezaugarriak

Draghi eta Letta informeak



- **Inbertsioa handitu**
- **Erregulazioa gutxitu**
- **Kooperazio gehiago EB**

ReArm Europe



- **800.000 milioi euro**
- **Produkzioa (ASAP)**
- **Kooperazio militarra herrialdeen artean**

Egonkortasun eta Hazkunde ituna



- **Defizit eta zor kontrola**
- **Murrizketak gastuan**
- **Ihes klausula defentsarako**

Nazioarteko harremanetan, berriz, antzematen da aldatu egin dela EBk Txinarekiko zuen jarrera. Davoseko Foroan Ursula von der Leyenek Pekinekiko harremana estutzearen alde egin zuen, EB eta Txinaren arteko lankidetzaren mesederako litzatekeela esanez. Honek politika europarrean aldaketa adierazten du; harreman ekonomikoak dibertsifikatzeko asmoa dago, mundu mailako merkataritzan tentsioak ugartu egin baitira. Hain zuzen, Von der Leyenek nabarmendu du Washingtonekin harreman pragmatikoa izan behar dela, eta ohartarazi du AEBek muga-zerga injustuak ezarritik gero EBk era berean erantzun behar duela.


2.6. Alemania, industriaren gainbehera

Alemanian atal berezi bat eskaini behar zaio orainoan, bere errealitate ekonomiko eta politikoa dela eta. Herrialdeak une politiko zaila bizi du. Gogora dezagun Scholz kantziler sozialdemokratak hauteskundeak aurreratu behar izan zituela FDPko liberalekin hautsi zuelako. Hauek defizitaren kontrol zorrotzari eutsi nahi zioten, eta SPDk, aldiz, gastu handiagoa nahi zuen. Otsailaren 23an egindako hauteskundeek garaipena eman diete CDUko kontserbadoreei, ultrasinistren bigarren indarra izatea lortu duen eszenatoki batean. Kontserbadoreek eta sozialdemokratek osatutako gobernu berriak, besteak beste, immigrazioaren aurkako jarrera hartu, zero defizitaren politika aldatu eta gastu militarra handitu ditu.

Esparru ekonomikoari dagokionez, Alemaniako industriaren gainbeherak krisia areagotu du. Alemaniaren geldialdia nabarmena izan da azken urte honetan, eta bere ekonomiak bi urteko atzeraldia izan du. Alemaniako garapen-eredua bi oinarri nagusitan oinarritu da historikoki: Errusiatik datorren energia merkea eskuratzea eta Estatu Batuetara esportazio sendoak egitea (azken hamarkadan bere bazkide komertzial nagusi gisa sendotuz); eta neurri txikiagoan, Txinara eta Europako merkatura. Politika horrek Alemania "esportazioen munduko txapeldun" bihurtu zuen, haiek beren burua izendatzen duten bezala.

Alabaina, herrialdeak azken urteetan lehiakortasuna galdu du, zati handi batean energiaren kostua garestitu delako, eta horrek esportazioei kalte egin dielako. Esan dugun bezala, industria alemaniarra krisian dago Errusiari ezarritako zigorrekin energia garestitu delako. Baina badira ere beste faktore batzuk: Txinara eragindako deslokalizazioak eta globalizazioak Txinarekiko lehiakortasunari erasan diote; gas errusiarrarekiko menpekotasunak eta teknologia digitalen garapen eskasak, berriz, oinarrizko sektoreei, esaterako industria kimikoari eta autogintzari. Beraz, krisiak kausa estrukturalak ditu, eta horrek, etorkizunean bere onera itzultzea oztopatzen du. Etorkizuna areago belztu daiteke muga-zergak benetan ezartzen badira.

2. grafikoa. Alemaniako produkzioa industrian (2021=100)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina Eurostateko datuekin


2.7. Hego Euskal Herria, ziurgabetasun osoan

Ukaezina da nazioarteko gertakariak eragin nabarmena dutela Hego Euskal Herrian. Hemengo enpresa industrialetara iritsi dira Europan gertatzen denaren ondorioak, bertoko enpresen esportazioaren zati handi bat Alemaniara baitoa. Abagune txarraren adierazle da esportazioak %4,1 murriztu izana HEHn, datu hau sakonago aztertuko dugu hurrengo atalean.

Aipatu dugun legez, muga-zergen igoerak kalte handia egin diezaiokete EAEko eta Nafarroako ekonomiari, automozioan, siderurgian eta metalgintzan. Trumpel berriki iragarri du apiriletik aurrera automobilerik %25eko tarifak ezarriko dizkiela, eta horrek ondorio latzak izan ditzake automozio sektorean. Copec-en datuek diotenez, EAEko esportazioen %8,4 AEBetara doa. Beraz, gehien esportatzen den herrialdeen artean hirugarrena da, Alemaniaren eta Frantziaren ondoren; horrek esan nahi du esportazio horien oso menpeko dela. Ekipo-ondasunak eta erdimanufakturatutako produktuak dira salgai nagusiak. Gehien esportatzen diren produktuak burdinezko hodiak eta gas-turbinak dira, baita petrolio findua eta banaketa-kamioiak ere.

Nafarroan, 2024an 557 enpresak esportatu zuten AEBetako merkatura, honela Europatik kanpoko helmuga nagusienetako bat bihurtu zen. Esportatzen duten sektore nagusiak automozioa, makineria elektrikoa eta nekazaritzako elikagaiak ziren (batik bat ardoa eta oliba olioak). Nafarroaren kasuan, AEBetarako esportazioak %4,1 dira.

4. figura . AEBetara bideratutako esportazioen ehunekoa



Bestalde, Mexiko eta Kanadari ezarritako muga-zergek Euskal Herriko enpresei ere eragingo liekete. EAEn 200dik gora enpresak dute presentzia bi herrialde horietan; 2023an 923 milioi euro esportatu ziren haietara, 713 milioi Mexikora eta 210 a Kanadara¹¹.

Muga-zergen oldarraldia dela eta Pradalesek esan du erantzun azkarra eman beharra dagoe-la, eta Industriaren Defentsarako Taldea sortu du. Halaber, ardatz atlantikoa indartzearen alde mintzatu da maiz; EAEk historian izan duen eragina berreskuratu beharko lukeela dio. Pradalesek dioenez, “Europak aktore protagonista izaten jarraitu nahi badu berrindustrializatzearen alde egin behar du, Europako industria berpiztea gauzatu”. Horregatik, Europako Batzordearen estrategia-ren ildotik joango da Euskadiko Industria Plan berria. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Euskal Finantza Aliantza ezarri du, legegintzaldi honetan 4.000 milioi euro mobilizatzea helburu duen lankidetzatza publiko-pribatua.

Testuinguru honetan Zedarriak taldeak txosten bat argita-ratu zuen "Euskadi eta Europar Batasuna: oparotasunaren eta lehiakortasunaren helmuga partekatua" izenekoa. Dokumentuak oinarritzat gorago aipatutako Draghi eta Lettaren txostenak hartu ditu. Txosten honek dio euskal industria trantsizio berde eta digitalera egokitu behar dela, eta I+G+b-rako inbertsioak behar direla; etengabeko prestakuntza sustatu eta tokiko zein nazioarteko talen-tuak erakartzeko baldintza erakargarriak sortu; Euska-diren presentzia areagotu Europar Batasunaren erabaki estrategikoetan eta europar funtsen itzulkina maximizatu, eta euskal gizarteak prestatu etorkizuneko erronkei aurre egin diezaien, heziketa egokitua eta gizarte zibilaren parte hartze aktiboarekin. Haatik, aurkezpeneko unerik deiga-rrienak izan ziren armagintzan eta energia nuklearrean inbertitzeko egin ziren aldarriak; Guillermo Dorronsoro lo-bbyaren zuzendariak ziurtatu zuenez horretarako “aukera bikaina izango da”.



«Aukera bikaina da defentsa militarrean inbertitzea»

G. Dorronsoro (Zedarriak)

Bestalde, hori salatu edo ezetsi ordez, Eusko Jaurlaritzak txostena ontzat eman zuen. Eusko Jaur-laritzako lehendakariordeak esan zuen ez ziola beldurrik armagintza-industriari, eta gobernuak ezin duela ezikusiarrena egin halako negozio-aukera baten aurrean. Jarrera hori defendatu zuen Lorenzo Rios Nafarroako UGTko idazkari nagusi izendatu berriak ere.

¹¹ Irigoyen, L. (2025eko otsailak 4). Crisis arancelaria alerta a 200 empresas vascas con sedes en EE UU. *El Correo*.

3. Adierazle makroekonomikoen analisia

3.1. Analisi globala

2024

Nazioarteko erakunde nagusiek aurreikusten dute 2024ko hazkundera ertaina izango dela. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) uste du mundu mailako ekonomia %3,2¹² haziko dela, eta horrekin bat dator ELGE ere. Aldiz, beste organismo batzuek, esaterako Munduko Bankuak, adierazi du %2,7koa¹³ izango dela. Erakunde guztiek bat egiten dute eskualdeen artean hazkundera desorekatua izan dela esatean.

Txinari dagokionez, aipatutako hainbat faktorek (kanpo-sektorearen bultzada, sostengu fiskal handiagoa eta higiezinaren merkaturako hobekuntza arina) eragin dute hazkundera. Baldintza hauei esker, asiarrak %5eko hazkundera izan zuten¹⁴. Hau da, Pekinek ezarritako helburua bete dute, eta gorakada AEBetako baino askoz handiagoa izan da. Dena den, egia da 2023. urtearekiko moteltzea gertatu dela.

AEBetan ekonomia sendo dago; langabezia-tasa aski apala da (%4,2) eta enplegu maila altua. Izan ere, AEBtako hazkundera ekonomikoak aurreikuspenak gainditu zituen, BPGaren %2,8ra¹⁵ iritsiz, duela urtebete aurreikusitakoa baino 0,7 puntu gehiago.

Ekonomia emergenteen eta garapen bidean direnen datuak ere aurreikuspenak baino hobeak izan ziren. Sarrera ertaineko herrialdeak %4,2 hazi ziren; aldiz, sarrera apalekoak, %4.

2025

Ez dago erabateko adostasunik 2025erako BPG globalaren aurreikuspenetan. Erakunde ezberdinek %2,7 eta %3,3 bitarteko hazkundera aipatzen dute. Kopuru hauen interpretazioa erakunde bakoitzaren ikuspegiaren baitan doa: erakunde multilateral eta think tank batzuk baikorrak dira, baina beste batzuek balizko arriskuak eta agertoki ez hain positiboak ikusten dute. Esaterako, World Economic Forum-ek ekonomialari buruen artean egindako inkesta batean 2025eko ekonomia globalari buruzko ikuskera nahiko ezkorra nabari da, eta hazkundera moteldu daitekeela esaten du.

Ikuspegi ezkor hau aipatutako arrisku-faktoreetan oinarritzen da, hala nola, protekzionismoaren gorakadan eta tentsio geopolitikoetan, eta horiek emaitza ekonomikoetan eragin negatiboa izan lezakete. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) ohartarazi du muga-zergen kostu ekonomikoak munduko BPGaren %7 izatera iritsi daitezkeela. Horrenbestez, espero da Txinaren hazkundera datorren urtean %4,5eraino jaitea, esportazioak ez baitira hain handiak izango. Gainera, AEBek muga-zerga berriak ezarriko dituzenez Txina ere erantzuten ari da, eta horrek merkataritza-gerra gogortzea ekarriko du. AEBen aurreikusitako hazkundera 2025ean %2,2koa izango da. Ekonomia emergenteena eta sarrera apalak dituztenena, aldiz, %4,7koa.

¹² Munduko Ekonomiaren Aurreikuspen Ekonomikoen Txostena (2025eko urtarrileko eguneratzea).

¹³ Munduko Aurreikuspen Ekonomikoak (2025eko urtarrila).

¹⁴ Txinako Estatistika Bulego Nazionala (ONE).

¹⁵ AEBetako Merkataritza Saileko Analisi Ekonomikoko Bulegoa (BEA).

1. taula. BPGaren hazkundera

	2024 (aurreikuspena) *	2024 (estimazioa)	2025 (proiekzioa)
Mundua	3,1	3,2	3,2
AEB	2,1	2,8	2,2
Txina	4,6	4,5	4,5
Ekonomia emergenteak eta garapen bidekoak	4,1	4,2	4,2
Sarrera apaleko ekonomiak	4	4	4,7

Iturria: NDF

3.2. Europa

2024

2024an, aurreikuspen ekonomikoek %0,9ko¹⁶ hazkunde urri bat erakusten dute, batez ere barne eskariarekin lotutako sektoreen bultzatuta. Europako Batzordearen arabera, kontsumo pribatuari mesede egin dio inflazioa kontrolpean jarri izanak (Europar Batasun mailan %2,7raino murriztu da, eta %2,4raino eurogunean)¹⁷. Jarduera ekonomikoaren gorakadan indar handiena zerbitzuen sektoreak egin du, pandemia ostean turismoak eta aisialdiak izan duten suspertzeari esker. Manufaktura-industriak, berriz, arazoak ditu hainbat faktore medio: esaterako eskari globalaren ahulezia, energiaren garestitzea eta produktibitate zein inbertsio apala, besteak beste.

Espainiar Estatuko hazkunde ekonomikoa izan da 2024ko ezusteko positiboetako bat; aurreikusten da %3,1eraino iristea. Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) arabera, BPG espainola euroguneakoaren hirukoitza hazi zen, urteko azken hiruhilekoan %0,8. Dinamismo hau batez ere zerbitzuen sektoreak dakar, baita barne eskariak eta esportazioek ere. Beste albiste positiboak enplegu-tasa, familien aurrezki maila altua, enpresen zorpetze maila apala eta inflazioaren kontrola izan dira. Alderdi negatiboa da, Europan bezalaxe, produktibitatea eta inbertsioa bere horretan daudela. Espainiar estatuak arazo estrukturalak ditu, eta horiek 2025ean bilakaera moteldu dezakete.

2025

Europar Batasunak espero da 2025ean aurreko urteetan baino hazkunde ekonomiko bizkorragoa izatea; BPGaren proiekzioa eurogunean %1,3koa da, eta %1,5ekoa Batasunean, Europar Batzordearen esanetan. Bilakaera hau izango da kontsumo pribatua mailaka suspertzen hasiko delako, inflazioa %2ko helburura hurbilduko baita eta honek familiei gastu handiagoa egiteko aukera emango die. Gainera, interes-tasen jaitsiera ere lagungarri izango da.

Litekeena da manufaktura-industria nolabait suspertzea aurreko urteetan izandako moteltzearen ondoren, hornikuntza-kateak hobetu eta eskari globala haziko delako. Alabaina, esan izan dugun bezala, erroka handiak daude, hala nola tentsio geopolitikoak, herrialde batzuen zor publiko handia eta klima-aldaketari lotutako arriskuak.

¹⁶ Europako Batzordea (2024ko udazkena).

¹⁷ Eurostat, abenduko datua.

Europar Batasunean 2025. urteak ere ez dauka itxura onik Alemaniarentzat. EBren udazkeneko aurreikuspenen arabera, %0,7 haziko da. Hala ere, Alemaniako banku zentralak, Bundesbank-ek, iragarri du BPGaren hazkundera %0,1ekoa izango dela. Baina horrekin batera esan du Trump presidente estatubatuarrek merkataritza-gerrari ekiten badio atzeraldia hirugarren urtez jarraian luzatuko dela. Estatuan analisten batez besteko hazkunde aurreikuspena %2,4koa da¹⁸; Gobernuak, berriz, dio %2,6raino haziko dela eta inbertsioak gora egingo duela.

2. taula. BPGaren hazkundera

	2024 (aurreikuspena) *	2024 (estimazioa)	2025 (proiekzioa)
Europar Batasuna	0,9	0,9	1,5
Eurozona	0,8	0,8	1,3
Alemania	0,3	-0,1	0,7
Italia	0,7	0,7	1
Frantzia	0,9	1,1	0,8
Estatu espainiarra	1,7	3,2	2,6

Iturria: Europako Batzordea, Espainiako Gobernua eta EIN

3.3. Hego Euskal Herria

2024

2024. urteko BPGa %2,2 hazi zen EAEn, Eustatek egindako hiruhilekoko kontu ekonomikoen estimazioen arabera. Eusko Jaurlaritzak urte hasieran egindako aurreikuspenak baino %0,3 gehiago da hori. Estimazioen arabera, barne-ekariak eta zerbitzuen sektoreak, turismoak bultzatuta, BPGa igo dute. Hala ere, kanpo-ekariaren ahuleziak ziurgabetasuna gehitzen dio merkataritza-bazkide nagusien krisiak baldintzatutako eszenatokiari.

Eustaten kanpo merkataritzako estatistiken arabera euskal esportazioak iaz %5,1 apaldu ziren. Kanpora egindako salmentak 30.967 milioi euro izan ziren, hots, 2023an baino 1.948 milioi gutxiago. Lurraldekoa, Arabak izan zuen jaitsierarik handiena, %10,4; Bizkaikoa %4,3koa izan zen, eta Gipuzkokoa, %0,9koa. Egoera honen zergatia tarteko eta ekipo-ondasunen jaitsiera izan zen. Iturri berak aipatzen du salgairik kaltetuenak 10 lagun baino gutxiagorentzako ibilgailuak izan zirela; neumatikoen salmenta %28,8 erori zen, eta erregaiena, %20,4. Mercedes eta Michelinen Gasteizko lantegiak, Basauriko Bridgestone eta Petronor izan ziren kaltedun nagusiak.

Nafarroan BPGa %2,7 handitu zen, Nastaten arabera; 2024ko azken hiruhilekoan %0,5 hazi zen; beraz, jarduera ekonomikoa aurreko urtearekiko azkartu egin zen. Martxoaren 12an ez dago datu bereizirik, baina badaude beste iturri batzuk. Laboral Kutxak dio zerbitzuen sektoreak barne-ekonomiaren sendotasuna erakusten duela, eta Nafarroako industriako dinamika "aski ona" dela. Haatik, hiruhileko kontabilitateko datuen aurrerapenak dio BPGaren moteltze arina "batik bat industrian gertatu den dinamismo apalagoaren" ondorio dela; halaber, "adierazleek inbertsioen eta esportazioen ahulezia" islatzen omen dute.

¹⁸ Funcas, urtarrileko panela.

Nastaten kanpo-merkataritzako datuek diote nafar esportazioak %0,6ko jaitsi direla. Hau da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, atzerapen txiki bat erakusten dute. Hala ere, EAEn ez bezala, Alemaniako esportazioak %7,1 handitu ziren, batik bat 10 lagun baino gutxiagoko turismoei esker (%27,1eko igoera izan zuten). Frantziara egindako salmentak %14,2 erori ziren, baina Italiakoak %14,5 handitu ziren.

2025

2025erako Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak EAEko aurrekontu publikoa egiteko oinarritzat %2,1eko hazkunde aurreikuspena erabili zuen. Hala ere, urte hasierarako Mikel Torres sailburuak kopurua hamarren bat jaitsi zuen, %2ra, "Europako ziurgabetasun politiko eta ekonomikoa" zela eta. BBVA Researchek aurten espero du %2,8ko hazkundea, iazko hirugarren hiruhilekoari zegokion Behatoki erregionalaren arabera (hau da, 2024ko urriaren 30ean). Aitzitik, Laboral Kutxa askoz ere ezkorragoa izan da eta uste du euskal BPGa %1,8 handituko dela.

Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Finantzetako Zerbitzuak egindako proiektzioen arabera Foru Erkidegoaren hazkundea 2025ean %2,2koa izango da. Otsailean egindako aurreikuspen hau irailekoa baino 0,4 puntu altuagoa da. Beste erakunde batzuek, esaterako BBVAk, %2,5eko hazkundea aurreikusi dute, eta Laboral Kutxak uste du Nafarroako BPGa %1,9 haziko dela.

3. taula. BPGaren hazkundea

	2024 (aurreikuspena) *	2024 (estimazioa)	2025 (proiektzioa)
Nafarroa	1,3	2,7	2,2
EAE	1,9	2,2	2

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako gobernua, Eustat eta Nastat

4. Inflazioa, moneta-politika eta erosahalmena

Aditu gehienek diote inflazio altuen aldia bukatu dela, bederen 2023an izan ziren bi digitutik gorako igoera haiek. Prezioen garestitzea asko moteldu da, baina oraindik ere banku zentralak ezarritako %2tik gora dabilta. Fenomeno honi "desinflazio" izena eman diote¹⁹. Haatik, nahiz eta inflazioa 2024an zeharo baretu den, kontua da KPIa estatu mailan %2,8raino handitu zela, eta %2,7raino Europar Batasunean.

Inflazio handiaren zergatiak Egoeraren Azterketa honetako aurreko zenbakietan azaldu izan ditugu. Baina komeni da berririko gogoratzea. Prezioen gorakada eskaintza urriak eragin zuen, ez gehiegizko eskariak (hau da zenbait joerak, esaterako monetaristak, egin duen analisia). Enpresek egoera honetaz baliatu ziren prezioak igotzeko eta etekin-marjinak handitzeko. Beraz, esan liteke prezioen igoera iragankorra izan zela.

¹⁹ Prozesu horren bidez, inflazio-tasak behera egiten du, hau da, prezioek gora egiten jarraitzen dute, baina lehen baino erritmo motelagoan.

Banku zentralak interes-tasak igotzeko politikei heldu zieten inflazioari aurre egiteko. FED izan zen erantzun zuen lehena, prezioen igoera jarraitua zela eta interes tasak 2022ko martxoan ezarritako %0,25etik 2023ko iraileko %5,5eraino igo zituen. Europako Banku Zentralak (EBZ) ere estrategia berari ekin zion, baina erreakzioa beranduago etorri zen, eta 2023ko irailean %4,5eraino iritsi zen. Bederatzi hilabete bete zirenean EBZ interes-tasak jaisten hasi zen. Europarrak bizkorrago ari dira tasak jaisten, Europan ekonomiak izan duen moteltzea dela eta; dagoeneko bost aldiz beheratu dira tasak, %2,5eraino; FEDek, aldiz, %4,25 eta %4,5 bitartean eutsi die.


Ezarri diren diru-politika zorrotzen ondorioz finantziazioaren kostua handitu zen eta horregatik Euriborra %4,5eraino handitu zen. Interes-tasen jaitsierak eragina du Euriborrean. Hau asko apaldu da: otsaileko batez bestekoa %2,4koa izan zen. Indize honen jaitsierak azken hiletan etxebizitzaren salerosketa hauspotu du, baita garestitzea ere. Hala ere, inbertsioan ez da bultzadarik ikusten, ez behintzat Europako inguruneari dagokionez.

4.1. KPIa beherantz, baina oraindik %2tik gora

Esan dugun legez, 2025eko azken hiletako igoeren ondoren KPIa %2,8raino igo zen 2024ko abenduan. Urte arteko adierazlea 2024 hasieran %3,4an zegoen, eta otsailerako %2,8raino murriztu zen. Maiatzean berriro %3,6raino iritsi zen; hori izan zen 2024ko puntu gorena. Orditik irailera bitartean beherantzko joera hartu zuen, %1,5eraino helduz. Azken hiletan, aldiz, erregaien garestitzearen eraginez aipatutako kopurura heldu zen.

Azpiko inflazioa (landu gabeko elikagaiak eta energia-produktuak aintzat hartzen ez dituenak) ez da hain aldakorra izan. 2024ko urtarrilean %3,6an hasi zen eta azaroko %2,4raino jaitsi zen. Abenduan bi hamarren egin zuen gora.

3. grafikoa. KPI orokorra eta azpikoa 2024 urtean



Iturria: EIN

4.2. Erosahalmena behera


Behin inflazioaren gorabehera gaindituta, beharrezkoa da jakitea langileriaren erosahalmenarekin zer gertatu den. Zenbait albisteren arabera 2024an soldata-errentek azken urteetan galdutako erosahalmena berreskuratu dute. Baina ondoren ikusiko dugu hori ez dela gertatu.

EINek argitaratutako Soldata Egituraren Inkesta da Azterketa Vulegoan erabiltzen dugun iturri nagusia soldata-errenten bilakaera aztertzeko. Baina datuok irailean argitaratzen dira, bi urte lehenago bildutako informazioarekin. Beraz, 2025eko irailean 2023ko datuak izango genituzke. Hala ere, badira beste erregistro batzuk ere, esaterako Lan-Kostuen Hiruhileko Inkesta (erdaraz ETCL); honek hiru hilean behin langile eta hileko batez besteko lan-kostuaren inguruko mailak eta adierazleak ematen ditu ezagutzera.

2019ko laugarren hiruhilekoaren eta 2024ko hirugarrenaren artean Hego Euskal Herriko soldatak %12,7 handitu ziren, 2.250 euro izatetik 2.537 euroraino igaroz, ETCLko datuen arabera²⁰. Alabaina, soldata erreala handitu zen ala ez jakiteko soldata nominalari prezioen igoera kendu behar zaio. Jarraian, KPIan, etxebizitzan eta elikagaietan izan zituen ondorioak zehaztuko ditugu:

- Epealdi berean Kontsumo-Prezioen Indizea (KPI) %17 hazi zen, hots, soldatak baino areago. Ondorioz, erosahalmena %3,6 apaldu zen; beraz, soldaten igoera nominala alde batera utzita langileek erosahalmena galdu dute.
- Etxebizitza da erosahalmenaren higadura pisu handia duen beste faktorea. EINren Etxebizitza Prezioen Indizeak dioenez, higiezinen prezioak aipatutako epealdian %24,3 hazi ziren. Igoera hau soldaten hazkundearekin alderatuz gero etxebizitza eskuratzeko erosahalmenaren galera 9,3 puntukoa izan da.
- Elikagaien prezioak azken urteetan %33,3 handitu ziren, KPI orokorraren bikoitza; honek 15,4 puntuko erosahalmenaren galera eragin du eremu honetan.

4. grafikoa. Erosahalmenaren bilakaera KPI, EPI eta elikagaien arabera (2019 4H=100)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina LKHI eta EINeko datuekin

²⁰ 12 hilabeteko batez besteko mugikorrekarekin egindako kalkulua. Batez besteko mugikorra datuen gorabeherak leuntzeko eta denboran zeharreko joerak aztertzeko erabiltzen den tresna estatistikoa da. Azterlan Kabineteak egindako kalkulua.

5. Enplegu adierazleen azterketa

5.1. Urte txarra enpleguarentzat


2024. urteko bilakaera aztertuko dugu 2023ko eta 2024ko laugarren hiruhilekoak alderatuz. Horretarako EINek plazaratzen duen Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA) hartuko dugu oinarritzat.

Okupazioa behera

Hego Euskal Herriko langile okupatuen kopurua jaitsi egin zen 2024an, urte bukaeran aurrekoan baino 27.200 lagun gutxiago izan ziren, 1.299.800 hain zuzen. Enplegua EAEn murriztu egin zen (43.400 lagun gutxiago); aitzitik, Nafarroan handitu egin zen, 16.200 lagun gehiago zenbatu baitziren. Sexuka egindako analisiak erakusten du 1.200 emakume okupatu gutxiago izan zirela iaz; gizonen artean enplegua askoz gehiago jaitsi zen, 26.000 lagun gutxiago izan baitziren. Gazteen artean ere jaitsiera gertatu zen, hain zuzen 6.900 lagun okupatu gutxiago aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekiko.

Jende okupatu kopuruaren jaitsiera sektore guztietan izan zen, industrian izan ezik. Eraikuntza eta nekazaritza izan ziren kaltetuenak: 19.000 eta 5.600 lagun gutxiago zenbatu ziren, hurrenez hurren; zerbitzuen sektorean ere 6.500 gutxiago izan ziren. Industriaren egoera gorabehera, sektore honetan aurreko urtean baino 3.900 lagun gehiago zegoen okupatuta.

5. figura. Okupazioa 2024 urtean



Iturria: Azterketa Bulegoak egina EINeko datuekin

Behin-behinekotasuna eta partzialitatea gora

24. or.


Lan prekarioa Hego Euskal Herrian oso hedatuta dago eta milaka langilek pairatzen dute. Enplegu hauetako askotan soldata oso apala da, bizimodu duina izateko aukera eragotziz, eta horrek desberdintasun ekonomikoa larriagotu egiten du.

Faktore kezkarri bat da ezarritako lanaldi partziala hedatzen ari dela, horrek langileen sarrerak murriztu eta lan-eskubideak mugatzen ditu. 2024. urtean lanaldi osoko 37.900 lanpostu gutxiago zenbatu ziren. Aldiz, lanaldi partzialeko enpleguan 10.500 lagun gehiago izan ziren. Egoerak bereziki emakumeei egin zien kalte: lanaldi osoko 18.100 lanpostu gutxiago zenbatu ziren, eta partzialeko 16.700 gehiago. Horrenbestez, emakumeen enplegu partzialeko tasa %28,1raino iritsi zen, azken urteetako tasarik altuenera. Gizonen tasa, berriz, %7,4ra jaitsi zen.

Prekaritatearen beste adibide bat da enplegu ezegonkorra duen langile kopuru handia; aldi baterako kontratuak ez diete lan jarraiturik egiteko aukerarik ematen. Behin-behineko kontratuak iaz %20tik %19,4ra jaitsi arren, portzentaje hori oraindik europar herrialdeetan baino handiagoa da (%13koa dena). Gainera, ia tasa berbera zegoen 2022ko azken hiruhilekoan (orduan %9,7koa zen). Bestalde, aipatu beharra dago tasa 5 puntu besterik ez dela murriztu 2019ko hiruhilekoaren aldean. Hori, lan-erreforma ezarri den arren. Adierazi behar da emakumeek prekaritate handiagoa pairatzen dutela, haien behin-behineko enplegu tasa %24,8koa zen, eta gizonezkoena, aldiz, %14koa. Gainera, egoera hau zeharo okertu da azken urtean: emakumeen behin behinekotasuna 2,6 puntu handitu zen; aitzitik, gizonena %3,6 jaitsi zen.

Sektorearen arabera azterketa adierazten du sektore pribatuko behin-behinekotasun tasa azken urteetan jaitsi egin dela. Haatik, enplegu publikoan oso handiak dira oraindik., %38,6 HEHn. Deigarria da EAeko portzentajea, %41,1ekoa; Nafarroan %30,2koa izan zen.

5. eta 6. grafikoak. Behin-behinekotasun-tasa eta partzialtasun-tasa sexuaren arabera 2024an



Iturria: Azterketa Bulegoak egina EINEko datuekin


Langabezia gora

Langabeziaren datuak ere iaz ez ziren onak izan. HEHn urte bukaeran 109.700 lagun zegoen lanik gabe, aurreko urtean baino 9.000 gehiago. Lurraldeka, okupazioarekin bezala, Nafarroan bilakaera positiboa izan zen, 8.400 langabe gutxiago baitziren urtea bukatzerako. Aitzitik, EAEn datuek erakusten dute 17.400 gehiago izan zirela urtarriletik abendura bitartean. Gorakada gizonena izan zen (+11.000); aldiz, emakumeena piska bat jaitsi zen (-1.900).

Langabe kopurua hazi zenez, langabezia-tasa HEHn %7,1 izatetik %7,8raino handitu zen (%7,6 emakumeen artean eta % 8 gizonen artean).

Azkenik, gazteen egoera prekarioari erreparatu behar diogu. Azken urtean gazte-langabezia handitu egin zen: 2.700 gehiago izan ziren urte bukaeran. Gazteen langabezia-tasa berriro handitu zen, lau puntu, %23raino.

7. figura. Langabezia 2024 urtean



Iturria: Azterketa Bulegoak egina EINEko datuekin

5.2. Kontratuaren prekaritatea hazi egin da


2024an 1.033.916 kontratu egin ziren Hego Euskal Herrian; hauetatik 749.692 EAEn sinatu ziren, eta 284.224, Nafarroan. Kontratuaren banaketa ia berdina izan zen emakume eta gizonen artean. Zehazki, gizonek sinatu zituzten %48,4, eta emakumeek, gainerako %51,6.

Kontratuaren %77,2 aldi baterako izan ziren

Datuek erakusten dute kontratu gehienak 2024an ere behin behinekoak izan zirela. SEPEren datuen arabera, lautik hiru baino gehiago (%77,3) izan ziren halakoak, guztira 799.082. Portzentajeak gora egin du azken lan-erreformaren dekretua onartu zenetik hona. 2023an portzentajea %75,3koa izan zen, eta 2022an, %76,3koa.

Sexuen araberako analisiak erakusten du emakumeen behin-behinekotasuna handiagoa izan zela (%79,6), gizonena %74,9koa izan zen.

7. grafikoa. Kontratazioa 2024an (%)



Iturria: Azterketa Bulegoak egina SEPEko datuekin

10 kontratutik 1 bakarrik izan zen mugagabea lanaldi osoan

26. or.

Kontratu mugagabea izateak ere ez dakar prekarietatea jasatetik salbuetsita egotea. Kontratu mugagabeen artean, erdia bakarrik izan zen lanaldi osokoa. Kontratu guztien % 11,8 lanaldi osoko kontratu mugagabeak izan ziren, hau da, 10etik 1 bakarrik.

8. grafikoa. Kontratazio mugagabea lanaldi motaren arabera



Iturria: Azterketa Bulegoak egina SEPEko datuekin


Aldi baterako lau kontratutik hiruk hilabete baino gutxiago iraun zuen

Kontratuen batez besteko iraupen zehatza ezin da ezagutu SEPEk ez duelako datu hau autonomia erkidegoka ematen. Hala ere, badago informazio partzialik. Argitaratutako datu estatistikoe-tan epemuga jakineko 657.885 kontratari buruzko informazioa jaso da; gainerakoak (141.197) epemuga jakinik gabeak dira. Kontratu hauetako gehienak ordezkapenak dira; ondorioz, pentsa liteke ez dutela iraupen oso luzerik izango.

Informazioa daukagun aldi baterako 657.885 kontratuen artean 497.057k hilabetetik beherako iraupena izan zuten, hots, %75,6ak.

Datuok esan nahi dute iruzurra ohikoa dela oraindik. Errealitateak erakusten du enpresetan eta herri-administrazioetan langileei kontratuak bata bestearen atzetik egiten zaizkiela lan-beharri-zan estrukturalak osatzeko, eta ez dituztela finko egiten.

9. grafikoa. Behin-behineko kontratuen durazioa



Iturria: Azterketa Bulegoak egina SEPEko datuekin


Emakumeek sinatutako kontratuen erdia lanaldi partzialekoa izan zen

Esan dugun bezala, ezarritako lanaldi partzialak eta aldizkako finkoak prekaritatearen adibide dira. 2024an sinatu ziren kontratuetatik %61,8 besterik ez ziren izan lanaldi osokoak; %33,2 lanaldi partzialekoak eta %5,1 aldizkako finkoak izan ziren.

Emakumeek lanaldi osoko kontratazio tasa askoz ere txikiagoa izan zen: %53,2, gizonen %70,9 aldean. Emakumeek sinatutako kontratuen %42,4 iaz lanaldi partzialekoak izan ziren, eta %4,3, aldizkako finkoak.

Emakumeek oraindik ere lan arloan zein familia-eremuan jasaten duten diskriminazioa islatzen dute datuek. Etxeko zaintzaren zatirik handiena beren gain hartzen dute, eta horregatik askok lanaldi partzalean dihardute, edota lanaldia murriztu behar dute. Ondorioz, sarrera txikiagoak dituzte eta jubilazioa kalkulatzeko aintzat hartuko den oinarri arautzailea ere murriztagoa da.

10. grafikoa. Kontratuak lanaldi motaren eta sexuaren arabera 2024an



Iturria: Azterketa Bulegoak egina SEPEko datuekin

OHARRAK:

Dotted lines for writing notes.